



ZURE ENPRESA

testuinguru ekologiko, sozial
eta teknologiko-digital berrira
egokitzeko unea iritsi da

Aurkibidea

01. Trantsizio ekologikoa

Monetizatu zure energia-aurrezpena EAZ sistemarekin	3
Prestatu klima-aldaketari aurre egiteko: lege-gakoak eta estrategikoak	4
Bete klima-aldaketari buruzko araudia: planifikatu ekintza jasagarriak zure enpresan	5
Ezagutu jasagarritasuna hobetzeko tresnak, enpresa lehiakorragoa izateko	6
Neurtu zure ingurumen-aztarna eta eraldatu enpresa datu errealetan oinarrituta	7
Aktibatu jasagarritasuna estrategian eta areagotu zure enpresaren lehiakortasuna	8
Murritz zure enpresaren gastu energetikoak, diagnostiko eta ekintza plan eraginkor batekin	9

02. Trantsizio soziala

Ezagutu TALCIR proiektua: elkarrekin, talentu zirkularra aktibatzen	10
Talentu inklusiboa duten negozio zirkularrak bultzatu	11
Kudeatu atzeritar pertsonen kontratazioa zure enpresan	12
Neurtu eta hobetu zure taldearen helburua eta motibazioa	13
Pertsonen kudeaketa zure funtsezko abantaila estrategikoa bihurtu	14
Aktibatu benetako eragina duen pertsonen kudeaketa estrategikoa	15

03. Trantsizio teknologiko - digitala

Ezagutu nola aplikatu dezakezun AA sortzailea zure industria-enpresan	16
Eraldaketa Digitalaren bidez, lehiakortasuna indartu	17
BETEK - Lehiakortasuna bultzatu Berrikuntza Teknologikoaren bidez	18
Datuen gobernantza eta esplotazio eraginkorra erabaki estrategikoak hartzeko	19



Monetizatu zure energia- aurrezpena EAZ sistemarekin

Ezagutu nola monetizatu zure enpresako energia aurrezpena, Energia Aurrezpeneko Ziurtagirien bidez (EAZ). Energia efizientzian egiten dituzun inbertsio eta jarduerak optimizatzeko jardunaldi praktikoa eta funtsezkoa.

NORENTZAT

→ Energia eraginkortasun eta errentagarritasunean interesa duten enpresa industrialentzat

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Energia Aurrezpeneko Ziurtagirien sistemaren funtzionamendua ulertzea (faseak eta puntu kritikoak).
- Monetizazio aukerak eta teknologia nagusiak identifikatzea.
- Espediente tekniko-administratiboak zuzen prestatzen ikastea.
- Sektorean aplikatu daitezkeen benetako arrakasta-kasuak ezagutzea.

Parte hartu EAZ (Energia Aurrezpeneko Ziurtagiria) sistemari esker, energia-aurrezpenak etekin ekonomiko bihurtzen ikasteko jardunaldi espezializatuan.

Baldintza teknikoak, izapidetze-prozesuak eta benetako kasu praktikoak ezagutuko dituzu. Aukera paregabea eraginkortasun energetikoan ahalik eta etekin handiena atera nahi duten industria-enpresentzat.

IKASIZ

SAIOA



Aurrez arrekoa ([Basazabal Jauregia](#))



2025, urriak 8 (9:00-11:00)



Andrea Estornés

Txekalde - Ingeniari aholkulariak

IZENA EMAN!

Prestatu klima-alaketari aurre egiteko: lege-gakoak eta estrategikoak

Industria enpresei zuzendutako prestakuntza saioa klima eta energiaren legediari buruz. Ezagutu araudia betetzeko beharrak, helburuak eta estrategia nagusiak, enpresa-erresilientzia indartzeko eta lehiakorra den iraunkortasunean aurrera egiteko.

NORENTZAT

→ Kalitate, ingurumen eta industria zuzendaritzako arduradunei zuzendurik.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Klima alaketari buruzko egungo lege-esparrua ulertzea:
 - 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, EAEko Jasangaritasun Energetikoari buruzkoa.
 - 254/2020 DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, EAEko Jasangaritasun Energetikoari buruzkoa.
 - 10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
 - 7/2022 LEGEA, apirilaren 9koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko.
 - 11/2023 LEGEA, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriarena (17. artikulua soilik)
 - 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
- Indarrean dagoen araudiaren helburuak eta hartzaileak ezagutzea.
- Trantsizio energetikoan eta klimatikoan funtsezko estrategiak identifikatzea.
- Sektorera aplika daitezkeen lege-eskakizunei aurrea hartzea.
- Posizionamendu iraunkorra eta lehiakorra indartzea.

Parte hartu eskualdeko industria enpresentzat diseinatutako saio honetan, eta ezagutu trantsizio energetikoari eta klima-alaketara egokitzeari buruzko legegintza eta estrategia-esparrua.

Lege eta dekretu aplikagarriak aurkeztuko dira, lurralde-estrategia nagusiekin batera, zure enpresak indarrean dagoen legeria betetzeko, arriskuak murrizteko eta klima-erronka berrien aurrean lehiakortasuna eta iraunkortasuna sendotzeko.

IKASIZ

SAIOA

 Online

 2025, irailak 24 (9:00-11:00)



Edurne Simón
Izadi 21

IZENA EMAN!

Bete klima-alaketari buruzko araudia: planifikatu ekintza jasagarriak zure enpresan

Trantsizio energetikoan, mugikortasun iraunkorrean eta ekonomia zirkularrean dauden legeko betebeharrak buruzko prestakuntza-saioa industria enpresentzat. Ezagutu araudia zehatz-mehatz eta planifikatu nola aplikatu zure lehiakortasuna indartzeko.

NORENTZAT

→ Kalitate, ingurumen eta industria zuzendaritzako arduradunei zuzendurik.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Industriari aplikatu beharreko ingurumen-araudia zehatz-mehatz ezagutzea.
- Jasagarritasunaren eta trantsizio energetikoaren legeko betebeharrak identifikatzea.
- Zure enpresan betebeharrak horiek betetzen direla planifikatzea.
- Erresilientzia eta jasagarritasun korporatiboa hobetzea.
- Lehiakortasuna indartu, eskakizun berrietara egokituta.

Parte hartu industriari aplika dakioken ingurumen-araudian sakontzen duen saio praktikoa honetan: trantsizio energetikoa, mugikortasun jasagarria, ekoizpen zirkularra, erosketa berdeak eta klima egokitzapena.

Ikasi zure enpresaren legeko betebeharrak identifikatzen eta planifikatu betetzea modu eraginkorrean, jasagarritasuna hobetuta, erresilientzia eta lehiakortasuna, klima-alaketaren eta erregulazio-eskakizun berrien testuinguruan.

IKASIZ

SAIOA

 Online

 2025, urriak 15 (9:00-11:00)



Edurne Simón
Izadi 21

IZENA EMAN!



Ezagutu jasangarritasuna hobetzeko tresnak, enpresa lehiakorragoa izateko

Lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten tresna eta baliabideei buruzko saio praktikoa enpresentzat: zure enpresan aplikagarriak diren gida, kalkulagailuak, laguntzak, ingurumen fiskalitatea eta teknologia garbiak.

NORENTZAT

→ Kalitate, ingurumen eta industria zuzendaritzako arduradunei zuzendurik.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Lehiakortasun jasangarria hobetzeko tresnak eta baliabideak ezagutu.
- Aplikatu daitezkeen laguntzak eta ingurumen fiskalitatea identifikatu.
- Teknologia garbi eta kalkulu kit baliagarrietarako sarbidea izan.
- GJHekin lerrokatutako jasangarritasunean aurrera egin (7, 9, 11, 12, 13).
- Posizionamendua bultzatu enpresa arduratsu eta jasangarri gisa.

Ezagutu prestakuntza-saio honetan ingurumen-betebeharrak betetzeko funtsezko tresnak eta baliabideak, jasangarritasuna eta lehiakortasuna sustatzeko.

Ezagutu gidak, kalkulu kitak (lhobe, Ekoberrikuntza Zirkularra Euskadi), Gipuzkoako Karbonoaren Borondatezko Funtza, laguntzak, ingurumen fiskalitatea eta teknologia garbiak. GJHekin bat datorren enpresa arduratsu eta jasangarri gisa aurrera egiten ikasi.

IKASIZ

SAIOA



Online



2025, azaroak 5 (9:00-11:00)



Edurne Simón
Izadi 21

IZENA EMAN!

Neurtu zure ingurumen-aztarna eta eraldatu enpresa datu errealetan oinarrituta

Kalkulatu, ulertu eta hobetu zure enpresaren ingurumen inpaktua. Prestakuntza, diagnostiko teknikoa eta aholkularitza pertsonalizatua jasoko dituzu tresna ofizialen bidez, zientzian oinarritutako klima-kudeaketa estrategiko baterantz aurrera egiteko.

NORENTZAT

→ Jasangarritasunarekin eta eraldaketa klimatikoarekin konprometitutako enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Enpresaren ingurumen-inpaktuaren inbentario osoa.
- Ingurumen-aztarna kalkulatzeko formakuntza praktikoa.
- 3C tresna ofizialaren erabilera gidatua (lhobe).
- Txosten teknikoa emaitzekin eta hobetzeko proposamenekin.
- Adituen laguntza prozesuaren fase bakoitzean.

Proiektu honek formakuntza, tresnak eta euskarri teknikoa eskaintzen dizkie industria enpresei, ingurumen aztarna modu zorrotz eta praktikoan neurtzeko. Ihobeko 3C tresnaren erabilerarekin eta aditu baten laguntzarekin,

txosten pertsonalizatua eta hobetzeko gomendioak jasoko dituzu, baita datuen fidagarritasuna landu ere. Aukera paregabea klima aldaketari aurrea hartzeko eta benetako inpaktua duen zure enpresa-posizionamendua indartzeko.

IKASEKIN

PROIEKTUA

 Aurrez arrekoa ([Basazabal Jauregia](#))

 Azaroa 2025 – martxoa 2026



Ana De la Fuente
Ik Ingeniería

IZENA EMAN!

Aktibatu jasangarritasuna estrategian eta areagotu zure enpresaren lehiakortasuna

Jasangarritasuna enpresaren estrategian eta kulturen barneratzeko programa praktikoa. Prestakuntza, laguntza eta ibilbide-orri pertsonalizatua zure enpresaren eraginkortasuna, berrikuntza eta bereizgarritasuna bultzatzeko.

1º Saioa: 2025/09/25

2º Saioa: 2025/10/23

3º Saioa: 2025/11/20

Itxiera ekitaldia: 2025/12/18

*Saioen artean, aholkulariarekin aurrez aurreko bilerak egingo dira.

NORENTZAT

→ Jasangarritasun estrategiko eta bereizgarria bilatzen ari diren enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Inpaktuaren diagnostikoa eta egungo egoera.
- Ibilbide-orri estrategikoa: lehentasunak eta hurrengo urratsak.
- Modu jasangarrian berrikuntza bultzatzeko ideia eta gakoak.
- Posizionamendua sendotzea komunikazio fidagarriaren bidez.
- Adituen laguntza eta prestakuntza praktikoa aplikagarria.

Jasangarritasuna modu estrategikoan ulertzen, aktibatzen eta barneratzen lagunduko dizun programa. Tailer praktikoak, adituen laguntza eta plan pertsonalizatua lehentasunekin eta gomendioekin.

Egiten ari zarena ordenatu, aukera berriak identifikatu eta zure konpromisoa modu sinesgarrian komunikatzen ikasi. Jasangarritasuna errentagarritasun, berrikuntza eta lehiakortasunaren benetako palanka bihurtu.

IKASEKIN

PROIEKTUA

 Aurrez arrekoa ([Basazabal Jauregia](#))

 Iraila - abendua 2025



David Zabala Alaba
Dezetaa Consulting

IZENA EMAN!



Murriztu zure enpresaren gastu energetikoak, diagnostiko eta ekintza plan eraginkor batekin

Industria enpresei zuzendutako programa tekniko-praktikoa: banakako energia-diagnostikoa, adituen aholkularitza eta hobekuntzak aplikatzeko prestakuntza praktikoa. Bultzatu trantsizio energetikoa modu estrategikoan, gastuak murriztuz eta energia eraginkortasuna hobetuz.

NORENTZAT

→ Efizientzia energetikoa hobetzea bilatzen ari diren enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Diagnostiko energetiko tekniko eta pertsonalizatua.
- Kontsumoak eta kostuak murrizteko neurri bideragarriak.
- Autokontsumo fotoboltaikorako proposamen eta gomendioak.
- Adituen laguntza inbertsio erabakietan.
- Prestakuntza praktikoa hobekuntza proposamenak ezartzeko.

Energia kontsumoak eta kostuak murrizteko diagnostiko eta ekintza plan pertsonalizatua, energia efizientzia hobetzeko eta autokontsumo aukerak ebaluatzeko, besteak beste. Bisita teknikoak, txosten xehatua gomendioekin eta hobekuntza

proposamenak ezartzeko prestakuntza praktikoa barne. Aktibatu zure enpresaren jasagarritasun energetikoa adituen laguntzarekin, lehiakortasuna eta trantsizio energetikorako konpromisoa indartuz.

IKASEKIN

PROIEKTUA



Aurrez aurrekoa enpresan



Iraila - azaroa 2025



Andrea Estornés

Txekalde - Ingeniari aholkulariak

IZENA EMAN!



Ezagutu TALCIR proiektua: elkarrekin, talentu zirkularra aktibatzen

Parte hartu TALCIR programaren emaitzen aurkezpenean: ezagutu lortutakoa, eskualdean izan duen eragina eta etorkizuneko lankidetzak, enpresa eta erakundeek ekarpenekin.

NORENTZAT

→ Ekonomia zirkularrean eta gizarteratzean konpromisoa duten nekazaritzako elikagaien enpresa eta enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- TALCIR proiektuaren emaitzak lehen eskutik ezagutzea.
- Gizarteratze, enplegu eta jasangarritasun politiken arteko loturak identifikatzea.
- Administrazio, gizarte-erakunde eta enpresen arteko lankidetzak aukerak lantzea.
- Eskualdeko garapen inklusiboan laguntzeko bide berriak deskubritzea..

Parte hartu TALCIR (egoera zaurgarrian dauden pertsonen talentua aktibatzen eta ekonomia zirkularrean zein jasangarritasunean oinarritutako negozio berriak bultzatzen dituen programa) emaitzen aurkezpen jardunaldian.

Ezagutu lortutako emaitzak eta eskualdeko garapen ekonomiko eta sozialean izan duen eragina. Gainera, erakunde eta enpresa ezberdinen ekarpenak jasoko dira eta lankidetzak aukera berriak aztertuko ditugu.

IKASIZ

SAIOA



Aurrez aurrekoa ([Intsausti Jauregia](#))



2025, uztailak 17 (10:00-12:00)



Maria Angelica Martinez
Sutargi

IZENA EMAN!



Talentu inklusiboa duten negozio zirkularrak bultzatu

TALCIR-i buruzko saio informatiboa: ezagutu nola txertatu ekonomia zirkularrean trebatutako talentua, eragin sozial positiboa sortu eta inklusioa eta jasangarritasuna uztartzen dituen proiektu berritzaile batean parte hartu.

NORENTZAT

→ Ekonomia zirkularrean eta gizarteratzean konpromisoa duten nekazaritzako elikagaien enpresa eta enpresa industrialentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- TALCIR proiektuaren helburuak ezagutzea.
- Talentu zirkularra sartzeko aukerak identifikatzea.
- Programan parte hartzearen inguruko zalantzak argitzea.
- Zure enpresarako gizarte-onurak eta estrategikoak deskubritzea.
- TALCIR pilotuan parte hartzeko interesa baloratzea

Parte hartu TALCIR (enpresak eta ekonomia zirkularrean eta jasangarritasunean prestatutako pertsonak konektatzen dituen programa) ezagutzeko saio informatiboan. Ezagutu nola bete zure talentu-beharrak,

proiektu zirkularrak bultzatu eta gizarteratzean zein tokiko garapen ekonomikoan nola lagundu. Helburuak, onurak eta enpresa parte-hartzaile gisa nola batu zehatz-mehatz azalduko dizkizugu.

IKASIZ

SAIOA



Aurrez aurrekoa ([Basazabal Jauregia](#)).



2025, uztailak 17 (10:00-12:00)



Maria Angelica Martinez
Sutargi

IZENA EMAN!



Kudeatu atzerritar pertsonen kontratazioa zure enpresan

Atzeritartasunaren legeriari buruzko online saioa. Ezagutu formula, baimen eta jardunbide egokiak atzeritarrak kontratatzeke, beren sarrera enpresaren benetako beharretara egokituz.

NORENTZAT

→ Atzeritarrak legez kontratatu nahi dituzten enpresentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Atzeritartasunaren lege berria eta haren ondorioak ezagutzea.
- Nazioarteko kontrataziorako formula legalak identifikatzea.
- Baimen eta erroldatze motak ezagutzea eta horiei buruz ikastea.
- Lan-zuzenbidean adituak direnekin zalantza zehatzak argitzea.
- Segurtasun juridikoarekin kontratatzeke jardunbide egokiak txertatzea.

Parte hartu jardunaldi praktiko honetan eta ezagutu atzeritar pertsonen kontratazioa kudeatzeko gako legal nagusiak. LKS Next Legal-eko adituen eskutik, baimenak, erroldatzeak, ekintzaileentzako legea eta egoera bakoitzera egokitutako formulak

ezagutuko dituzu. Argitu zure zalantzak eta nazioarteko talentua zuzen eta eraginkortasunez txertatu zure enpresan, araudia betez eta segurtasun juridikoa bermatuz.

IKASIZ

SAIOA



Online



2025, urriak 17 (9:00-10:30)



Germán Azpiazu
LKS

IZENA EMAN!



Neurtu eta hobetu zure taldearen helburua eta motibazioa

Zure lantaldeko kideen autonomia, gogobetetasuna eta lanarekin duten konpromisoa ezagutzeko diagnostiko praktikoa. Lortu datu objektiboak eta jaso zure erakundeko lan-giroa hobetzeko proposamen errealista bat.

NORENTZAT

→ Ongizatearekin, klimarekin eta barne-jasangarritasun sozialarekin konprometitutako enpresentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Helburua, autonomia eta lan-gogobetetasuna neurtzeko diagnostiko osoa.
- Emaizak eta lehentasunezko hobekuntza-eremuak jasotzen dituen txosten argia.
- Autonomia, motibazioa eta lan-giroa indartzeko proposamen praktikoa.
- Prozesu osoan zehar aholkularitza tekniko espezializatua.
- Lan-kultura eraldatzeko bide-orri pertsonalizatua.

Parte hartu programa honetan eta neurtu zure enpresan lanaren zentzua Mondragon Unibertsitateko Zentzulan tresnaren bidez. Ezagutu zure langileek nola sentitzen diren, identifikatu hobekuntza errealistak eta

diseinatu ingurune motibatzaileago eta gizatiarrago bat. Diagnostiko zorrotz bat jasoko duzu, gomendio praktikoa eta aldaketa eraginkorrak ezartzeko adituen laguntza.

IKASEKIN
PROIEKTUA

Aurrez aurrekoa enpresan

Ekaina - abendua 2025

Iraurgi Berritzen
IZENA EMAN!



Pertsonen kudeaketa zure funtsezko abantaila estrategikoa bihurtu

Talentua erakartzen, fidelizatzen eta garatzen ikasi, ikuspegi estrategiko, gizatiar eta jasangarri batetik. Talde-dinamiken bidez, kasu inspiratzaileak ezagutuz eta adituen laguntzarekin, zure enpresa eraldatzeko aukera izango duzu.

1º Saioa: 2025/10/23 (9:00-12:00)

NORENTZAT

→ Urola Erdiko industria-enpresetan pertsona eta talentu arduradunei zuzendurik.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Pertsonen kudeaketan ikuspegi estrategiko eguneratua lantzeko prestakuntza.
- Talentua erakarri eta fidelizatzeko tresna praktikoak.
- Erreferentziazko kasu eta esperientziekin inspirazioa.
- Eskualdeko beste enpresekin laguntza-sarea sortzea.
- Lidergoa eta kultura antolatzailea aktibatze bide-orri praktikoa.

Parte hartu ikaskuntza partekatuan oinarritutako programa honetan, eta birpentsatu talentuaren kudeaketa ikuspegi estrategiko eta iraunkor batetik. Ezagutu nola erakarri eta fidelizatu helburuarekin lan egiten duten pertsonak, lidergo kontzienteak

aktibatu eta motibazioa sustatzen duten kultura antolatzaileak sortu. Saio presentzialak, dinamika kolaboratiboak, tresna praktikoak eta adituen laguntza izango dituzu, pertsonen kudeaketa benetako aldaketaren motor bihurtzeko.

IKASEKIN

PROIEKTUA



Aurrez arrekoa ([Intsausti Jauregia](#)) eta bisitak enpresetan.



Urtarrilla - abendua 2025



Ainhoa Zatarain
OPE

IZENA EMAN!



Aktibatu benetako eragina duen pertsonen kudeaketa estrategikoa

Zure enpresan pertsonen kudeaketa aztertzeko eta hobetzeko programa praktikoa. Banakako diagnostikoa, ekintza plan pertsonalizatua eta talentua erakartzeko, garatzeko eta fidelizatzeko prestakuntza aplikatua.

1º Saioa: 2025/09/18 (09-00-12:00)

2º Saioa: 2025/10/02

3º Saioa: 2025/10/16

4º Saioa: 2025/10/30

5º Saioa: 2025/11/13

NORENTZAT

→ Pertsonen kudeaketa profesionalizatu nahi duten enpresentzat, hobekuntza eta berrikuntzako proiektu praktikoak aktibatuz.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Giza Baliabidetako egungo ereduaren diagnostiko argia.
- Pertsonen funtsezko prozesuak hobetzeko proposamen praktikoak.
- Ekintza plana lehenetsitako neurriekin eta neurri errealistekin.
- Onboardin, klima eta lidergoaren arloko trebakuntza praktikoa.
- Hobekuntzak modu eraginkorrean ezartzeko adituen laguntza.

Parte hartu zure enpresako pertsonen kudeaketa eraldatzeko lagungarri izango den programa tekniko-praktiko honetan. Diagnostiko pertsonalizatua, egokitutako hobekuntza-proposamenak eta prestakuntza-saio espezializatuak jasoko dituzu,

talentua erakartzeko, harrera-prozesuak hobetzeko, motibazioa indartzeko eta lan-giro osasuntsua sustatzeko aldaketa estrategikoak ezartzeko. Aditu-talde baten laguntzarekin, kudeaketa estrategiko, gizatiar eta eraginkorrako baterantz egingo duzu aurrera.

IKASEKIN**PROIEKTUA**

 Aurrez arrekoa ([Intsausti Jauregia](#)) eta bisitak enpresetan.

 Ekaina - abendua 2025



Ainhoa Zatarain
OPE

IZENA EMAN!



Ezagutu nola aplikatu dezakezun AA sortzailea zure industria-enpresan

Industria-sektorerako masterclass praktiko honetan, tresna erabilgarriak, aplikazio estrategiak eta kasu errealak ezagutuko dituzu. Ikasi AA sortzaileak enpresetan nola eragiten duen eta nola aprobetxatu dezakezun zurean.

NORENTZAT

→ AA aplikatu nahi duten industria arloko enpresentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- AA sortzailea zer den eta nola funtzionatzen duen ulertzea.
- Industria-prozesuetan aplikatutako kasu errealak ezagutzea.
- Enpresako funtsezko arloetarako tresna erabilgarriak identifikatzea.
- Aplikazioa hasteko estrategia praktikoak jasotzea.
- Tokiko industria-enpresen esperientzia errealak entzuteko aukera.

Adimen artifizial sortzailea industria-prozesuak eraldatzen ari da. Saio honetan, 170 enpresa industrial baino gehiagok erabiltzen dituzten tresnak ezagutuko dituzu, aplikazio errealak ikusi eta estrategikoki

nola txertatu ulertuko duzu. Erabilera-kasuak, gida praktikoa eta eskualdeko enpresen testigantzak izango dituzu, zure enpresan aplikatzen hasteko ideia argiekin irteteko.

IKASIZ**SAIOA**

Aurrez arrekoa ([Basazabal Jauregia](#))



2025, irailak 17 (9:00-12:00)



Álvaro Zevallos
Digitalentu

IZENA EMAN!



Eraldaketa Digitalaren bidez, lehiakortasuna indartu

Programa praktikoa eta pertsonalizatua, Urola Erdiko ETEetan eraldaketa digitalaren prozesua bizkortzeko laguntza eskaintzen duena, metodologia frogatu baten eta arrakasta-kasuak sortzeko esperientzia praktikoaren bidez.

NORENTZAT

→ Urola Erdiko industria-enpresa eta industriari lotutako zerbitzu-enpresentzat.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Enpresaren heldutasun digitalaren diagnostikoa.
- Negozioaren hobekuntza-aukerak eta/edo barne-eraginkortasuna identifikatzea, aukera nagusia lehenetsiz.
- Bide-orri digital pertsonalizatua diseinatzea, hobekuntza-aukerarik nagusia baliatzeko ekintza-plan pertsonalizatu bat garatuz.
- Kanpo-laguntza espezializatua prozesu osoan zehar.
- Kasu bakoitzerako erabilgarri eta egokiak diren teknologia digitalen identifikazioa.

Programa hau aukera paregabea da zure industria-ETEak digitalizazioaren arloan jauzi bat egin dezan. Saio indibidualen, adituaren laguntzaren eta lankidetzaren bidez, zure egungo egoera eta beharrak aztertuko dituzu, aukera teknologiko zehatzak identifikatu

eta ekintza-plana izango duen bide-orri digital pertsonalizatu eta bideragarria diseinatuko duzu. Guztia ikuspegi praktikoarekin: inpaktua, efizientzia eta iraunkortasuna helburu, erabaki sendoekin hazteko, arrisku txikiagoarekin eta zure helburuekin lerrokatuta.

IKASEKIN**PROIEKTUA****Aurrez aurrekoa enpresan****Urria 2025 - ekaina 2026****Zehazteko****IZENA EMAN!**



BETEK - Lehiakortasuna bultzatu Berrikuntza Teknologikoaren bidez

Berrikuntza teknologikoko proiektuak sustatu eta abian jartzeko programa praktiko eta pertsonalizatua, Berrikuntzaren Kudeaketa ikuspegi teknologikotik egituratuta ez duten enpresentzat.

NORENTZAT

→ Urola Erdiko altzari eta egur arloko enpresa industrialentzat, ahalmen teknologikoa eta berritzeko gogoia dutenei zuzendurik

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Diagnostiko teknologiko pertsonalizatua eta egokitutako bide-orria.
- Zentro teknologikoekin konexioa, prestakuntza eta funtsezko baliabideak.
- Berrikuntza oztopatzen duten eragozpenen identifikazioa.
- Jardunbide egokiak eta benetako adibideetara sarbidea.
- Bide-orri teknologiko baten bidez, lehiakortasuna hobetzea.

Hartu parte berrikuntza teknologikoaren arloan jauzi bat ematen lagunduko dizun programa pertsonalizatu honetan. Diagnostiko pertsonalizatuen, adituen aholkularitzaren eta zentro teknologikoen laguntzaren bidez,

parte hartzen duten enpresek beren ibilbide orri teknologikoa definituko dute. Programa hau funtsezkoa da berrikuntza-arrakala murrizteko eta lehiakortasuna hobetzeko.

IKASEKIN**PROIEKTUA**

Aurrez aurrekoa enpresan



Urria 2025 - urtarrila 2026



Garbiñe Manterola
BRTA



Iñigo Mujika
TKNIKA

IZENA EMAN!



Datuen gobernantza eta esplotazio eraginkorra erabaki estrategikoak hartzeko

Zure enpresak datu asko sortzen ditu egunero... baina zenbat erabiltzen dituzu erabaki hobeak hartzeko?

NORENTZAT

→ Eskualdeko enpresa txiki eta ertainetako ordezkariak: Zuzendariak, Finantza arduradunak, IT arduradunak, etab.

ZER LORTUKO DUZU PARTE-HARTZEAN?

- Datuen gobernantzaren eta esplotazioaren oinarritzko kontzeptuak ulertzea.
- Ohiko akatsak detektatzea eta ikastea nola saihestu zure enpresan.
- Eredu eraginkor baterantz egiteko lehen urratsak identifikatzea.
- Teknologia eta soluzio berriak ezagutzea, enpresan benetako eragina dutenak.

Saio honetan ezagutuko dituzu datuen gobernantzaren eta esplotazioaren gako nagusiak, nola bihurtu informazioa erabaki azkar eta eraginkorretan.

Gainera, aukera izango duzu eskualdeko beste industria-enpresa batzuekin esperientziak partekatzeko, ikuspegi praktiko batetik.

IKASIZ**SAIOA**

Aurrez aurrekoa ([Basazabal Jauregia](#)).



2025, azaroak 27 (9:00-12:30)



Idoia Iceta
Digitalentu

IZENA EMAN!